

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Bertizek Basoen Munduko Eguna ospatuko du igande honetan

Pista nagusitik Aizkolegiko Jauregiraino mikrobusez bisita gidatua egiteko plazak daude oraindik

Ostirala, 2019.eko martxoak 15

Bertizko Jaurerriko Parke Naturalak [Bertiz](#) igande honetan (hilak 17) bigarren urtez jarraian Basoen Munduko Eguna [Día Mundial de los Bosques](#) ospatuko du, eta zenbait ekintza eramango ditu aurrera [jaduera](#) duen hedaduragatik eta balio ekologikoagatik Bidasoaren arroko baso bereizgarrietako bati buruz informatu eta erakusteko.

Nobedade moduan, aurten, pista nagusitik Aizkolegiko jauregiraino mikrobusez bi bisita gidatu egingo dira: lehenbizikoa, goizekoa, osatuta dago jada, baina arratsaldean egingo denerako plazak daude oraindik. Arratsaldeko ibilbide honetan parte hartu nahi duenak erreserba egiteko 948 59 24 21 telefono-zenbakira deitu beharko du, 10:30etatik 17:30etara. Ibilbidea 16:00etan hasiko da, eta 5 euro/pertsonako balioko du.

Egunari hasiera emanez, goizeko 11:30ean Jesús Garitacelayak mendi-ingeniariak Jaurerriko basoaren 500 urteko historia xehatuko ditu. Gero, 12:30ean, aurten egingo den parkeko argazki-lehiaketaren oinarriak aurkeztuko dizkigute. Eta, 12:40ean, "Toda una vida disfrutando de los árboles" argazki-erakusketaren aurkezpena eta bisita egingo da, Luis Lansaren eta Vicente Garroren eskutik.

Horrez gain, naturako elementuekin doako tailerrak egingo dira neska-mutilentzat, 11:30etatik 13:30etara eta 16:00etatik 17:00etara.

Aipatu behar da lorategi historiko- artistikora doan sartzeko aukera egongo dela egun osoan zehar.

Egun honetan, NBEko Batzar Orokorrak horrela erabakita eta martxoaren 21aren oroimenez, gizartea kontzientziatu nahi da basoek pertsonen bizitzan duten garrantziaz eta ingurumenaren jasangarritasuna, osasun-elikadura eta pobrezia errotik kentzea lortzeko duten zeregin erabakigarriaz. Aurtengo leloa honakoa da: Hezkuntza eta Basoak. Basoa maitatzen ikasi ezazu!